




2020ko  
**BALANTZEA**


***%55eko muga gainditu du 2020an  
Debarrenak gaikako bilketari dagokionez***

Debarrena eskualdeak %55,26ko urteko gaikako bilketa tasa lortu du 2020an, 2019an baino %1,24 gehiago.  
2020an 2019an baino 403 tona gehiago bildu dira gaika.



## Gaikako bilketa


Debarrenako Mankomunitatearen gaikako bilketaren ehunekoak hobetzen jarraitzen du. Gaikako bilketaren tasa %1,24 hazi da 2020an.



■ Gaikako bilketa ■ Errefusa


## *Hondakin bilketa*

2020an guztira 31.193 Tn hondakin bildu dira Debabarrenan. Horietatik, 17.237 Tn bildu dira gaika. Gainerakoa, errefusa, 13.965 Tn izan da.



## *Materia organikoaren bilketa*

156 tonatan igo da bildutako materia organikoa 2019tik 2020ra. 2020an guztira 5.279 tona bildu dira.




## Gainerako zatien bilketa

Gaikako bilketan bildutako zati guztien bilketa igo da:

- Materia organikoa 2019an 5.123 Tn izatetik 2020an 5.279 Tn izatera igaro da.
- Papera eta kartoia 2019an 3.718 Tn izatetik 2020an 3.884 Tn izatera igaro da.
- Ontzi arinak 2019an 1.527 Tn izatetik 2020an 1.627 Tn izatera igaro da.
- Beira 2019an 2.302 Tn izatetik 2.069 Tn izatera igaro da.


Tonak



## Errefusa


Birziklatu ezin diren hondakin kopurua, errefusa, 371 tonatan murriztu da 2020an. Datu pozgarria da, izan ere, Mankomunitateak Plan Estrategikoan ezarri zuen jomuga 2030era bitarte urtero 522 tona murriztea, eta datuetan ikus daiteke aurrera pausuak ematen ari garela eskualde gisa.

% Gaikako bilketa udalerriz udalerrri






## Kilogramo



## *Hondakinak.*

Kilogramoak biztanle bakoitzeko

Etxeko eremuan, 2020an guztira 428,65 kg sortu ziren biztanleko eta horietatik 236,86 kg gaika bildu ziren.



■ Materia organikoa ■ Papera/Kartoia ■ Beira ■ Beste batzuk ■ Ontziak

## Hondakinen bilketa

### Materialen arabera

- MATERIA ORGANIKOA: 5.279 tn
- PAPERA / KARTOIA: 3884 tn
- BEIRA: 2069 tn
- BESTELAKOAK (pilak, ehun-gaiak, olioak, aparatu elektrikoak, zura eta tamaina handikoak): 3610 tn
- ONTZIAK: 1627 tn

## Ondorioak

### 01

Debabarrenak **%55,26**ko gaikako bilketa tasa lortu du 2020an.

### 02

Deba, Eibar eta Mutrikuk Mankomunitatearen batz bestekoa gainditu dute.

### 03

Lehen aldiz, eskualdeko gaikako bilketak **%55**eko muga gainditu du.

### 04

Guztira **31.193** Tn bildu dira, biztanle bakoitzeko **428,65** kg Horietatik, **17.237** Tn bildu dira gaika.

### 05

Errefusa **371** tonatan murriztea lortu da.

### 06

Urtean zehar birziklapena eta gaikako bilketa sustatzeko egin diren kanpaina eta egitasmoek eragina izan dutela esan daiteke.



2020ko  
**BALANTZEA**